



literatur amuak 2019

ONDARROAKO UDAL EUSKARA BATZORDEA ONDARROA

URRIAK 10
EGUENA



AUGUSTIN ZUBIKARAI VIII. IPUIN RALLYA

Herriko ikastetxeetan ipuin rallyaren VIII. edizioa egingo da.

9:00etan hasita @ HERRIKO IKASTETXEAK. 11:00etatik aurrera ikuskizuna parte hartzaileentzat.

Herriko ikastetxeekin antolatutako ekintza da: Ipuin Rally honetako parte hartzaile bakoitzak bi ordu izango ditu ipuin bat sortu eta paperean idatzita entregatzeko; gainera, momentuan bertan emango dioten esaldi bat txertatuko du kontakizunean.

URRIAK 25
BARIKUA



LIBURUEN AMUAK IRAKURKETA TALDEA

"Basa". Miren Amuriza idazlearekin.

19:30 @ KOFRADIA ZAHARRA

Liburuen Amuak irakurle taldearen lehen hitzordua. Liburuak lasai asko komentatzeko tarte ederra; ordu bi, bete-beteak, solasaldirako. Joxemari Urteagak gidatuko du taldea eta saio honetan, gainera, aukera izango dugu Miren Amuriza idazlearekin egoteko.

URRIAK 30
EGUAZTENA



ZUBIKARAI SARIAK

Ipuin rallyaren VIII. edizioa. Sari-banaketa 18:00 @ KOFRADIA ZAHARRA

Nanoipuin lehiaketa: Sari-banaketa eta irakurraldia 18:30 @ KOFRADIA ZAHARRA

ZUBIKARAI beka 19:00 @ KOFRADIA ZAHARRA

Aurkezpen bikoitza Zubikarai bekari esker: nobela argitaratu berri bat eta eta nobela proiektu bat, urtebeko epean amitukta egingo dena: 2018ko beka: Afrikanerak nobela, Eneko Barberenarena, Joxe Mari Urteagak aurkeztuta. 2019ko beka: proiektu berriaren irabazlea, Xabier Mendiguren aurkeztuta

URRIAK 31
EGUENA



ONDARROAKO GAZTEEKIN EGINDAKO IKERKETA SOZIOLINGUISTIKO BATEN AURKEZPENA

Jon Fernandez San Martin eta Kike Amonarriz

19:00 @ KOFRADIA ZAHARRA

Ondarroako gazteek zer hizkuntza ohitura dituzten sare sozialetan lehen eskutik ezagutuko dugu. Emaitza interesgarri asko eman du ikerketak eta egileak berak eta tutore izan duen Kike Amonarrizek emango dituzte zehaztasunak ikerketan parte hartu duten Ondarroako Batxilerrako ikasleek lagunduta.

URRIAK 31
EGUENA



AINGURAK

Komiki musikatua. Ikuskizuna

20:30 @ KOFRADIA ZAHARRA

Komikigintza eta zuzeneko musika uztartzen dituen emanaldi honek Joseba Larratxe marrazkilararen komiki hau du abiapuntu "Aingurak: edo zer hartu ontzitik itsasoa harri bihurtzen bada." Joseba B. Lenoir eta Miren Narbaiza musikariek espreski sortu dute soinu banda. Komikiko biñetak banan-banan proiektatzen dituzte musikaz lagunduta; zinema mutuaren garaian bezala, irudi bakoitza musikaz betetz bere doinu propioarekin.

AZAROAK 1
BARIKUA



LUA KASTORE

Ma Kolektiboa. Dantza, antzerkia eta ikus-entzunezkoak.

19:00 @ BEIKOZINI ARETOA. Sarrera 2 euro.

Lua Kastore protagonistaren barne bidaian oinarrituko da Oihane Enbeitak, Andoni Gartzia eta Eneritz Zeberioi garatuko duten antzezlan. Hiru kide eta hiru arte eremu: dantza, antzerkia eta ikus-entzunezkoen diseinua. Kolektibo moduan aurkezten duten lehen lana da Lua Kastore. 2018ko Joseba Jaka Sorkuntza Beka irabazi zuen.

AZAROAK 2
ZAPATUA



EUSKALDUNEN MALURAK ETA PALIATIBOAK

Kepa Altonaga eta Ainize Madariaga. Solasaldia

12:00 @ KOFRADIA ZAHARRA

AINIZE MADARIAGA eta KEPA ALTONAGA. Liburu bi eta gogoeta partekatua.

Egile bion arteko solasaldi eta gogoeta: Bonaparte printzearen itzalean zein hizkuntza gutxiagotu batean hazi izandakoan, euskaldunak beti penetan?

LIBURUAK: Komunitatea hats-bahiturik. Hitzunaren trauma: diagnosis eta paliatiboak.

Duvoisin kapitainaren malura. Bonaparte printzearen itzalean.



ENAREN KONTUAK

2princesesbarbudes. Musika ikuskizuna publiko guztientzat

17:00 @ MUSIKA ESKOLA

Hamaika kanta, enaren istorioz josiak: nola egiten duten habia, zer jaten duten, kumeak nola hazten dituzten, zer janzen duten, nora bidaiatzen, zerekin egiten amets. Dokumental ornitologiko moduko honetan, Afrikako migrazioetik iritsi berri diren lau enara bizardun topatuko dituzue oholtzan, jostailuzko musika-tresnekin eta pop eritimoekin kontzertu bat emateko prest.



MUNDUKO POESIA KAIA

Metrokoadroka kolektiboa. Ikuskizuna

19:00 @ KOFRADIA ZAHARRA

Susa argialetxearekin elkarlanean Munduko Poesia Kaiara bildumaren proiektua 30. zenbakira iritsiko dela-eta, emanaldi berezia prestatu du kolektiboak dantza gararikidea, poesia, umorea eta antzerkia uztartzen dituen. Poesia errezitaldi hibridoak izango da non ahotsez eta mugimenduz gorpuztuko dira bilduma osotik ateratako testuak.

AZAROAK 3
DOMEKA



ENKARGUZ

Andoni Egaña eta Xabier Zabala, Alberto de Abajok lagunduta publikoaren parte-hartzearekin

18:00 @ BEIKOZINI ARETOA. Sarrera 2 euro.

Enkarguz sormen-proposamen bat da. Xabier Zabala eta Andoni Egañak hamaika abesti sortu dituzte elkarrekin; proposamen honetan, ostera, ordu eta erdi izango dute soilik abesti bat sortzeko, hari bai, publikoaren laguntzarekin. Gai bati heldu eta abestia sortuko dute ikuskizunean zehar. Alberto De Abajok lagunduko die ikus-entzunezkoetan. Enkarguak badu bere arriskua ere, sormen prozesu guztietan bezala. Erronkari heltzeko kapaz izango dira? Etorri eta parte hartu!